

“Etnologo gazte”

Proiektu kulturala eta artistikoaren aurkezpena

Helburua: "Eleketa" ahozko memoriaren bilketari esker bildu ikus-entzunezko artxiboen baloratzea, kultura egitasmo baten zerbitzuko izanen den ekoizpen zientifiko baten bidez.

ELEKETA programaren bidez, Euskal kultur erakundeak euskarazko ahozko lekukotasunak biltzen ditu 2009tik hona, Pirinio-Atlantiarretako Kontseilu Orokorrarentzat (Departamenduko Artxibo Zerbitzua).

Publikoa

- Kolegioko ikasleak (3.a): gela bakar bat.

Helburua ikasleentzat

- Profesionalekin topo egitea (lanbideen ezagutzak kolegioko ikasleen orientazioa laguntzen du): etnologoa / irudi hartzailea eta muntatzailea / artxibozaina
- Gaitasun hauek lantzea: hitz-hartzea, entzumena, idazkera, irudi/soinuaren tratatzea, bildutako informazioen laburbiltzea eta kodifikatzea.

Lanaren hedapena

- 1- Ekoizpena ezagutarazteko, ikasgelan padlet bat sortu plataforma hauetan : mintzoak.eus eta archives.le64.fr

Gai proposamenak

Aitatxi-amatxien gaztaroa: herriko bestak, lana, familia bizia, hizkuntza, laborantzaren garapena, baserrialdeen hustea, garraioak, eskola denbora, ipuin eta leiendak : hots 1960 urteetako bizia.

Zein profesioaletan oinarritu

- Etnologoak, irudi hartzaileak eta muntatzaileak, artxibozainak

Epeak

- Apirila: ikastetxe elebidunei proposatu, bereziki erakasle euskaldunei (euskara, historia-geografia, teknologia, dokumentalistak), departamenduko PAEC katalogoaren bidez.
- Uztaila: bilkura Baiona-Euskal Herriko artxibo poloan, erakasleekin eta kanpoko parte hartzaileekin (Euskal kultur erakundeak, irudi hartzailea eta muntatzailea), proiektua zehazki aurkezteko, iraila erdia aitzin datak finkatuak izan daitezten.
- Iraila: datak finkatu (hiruhil batean kokatuz)*

*** OHARRA: Egitasmoa bi kolegioekin eraman daiteke urtean : batekin 1. hirulean, bestearekin 2.ean**

PROIEKTUA NOLA IRAGANEN DEN

Ekintza: “Etnologo gazte” tailerra proposatzea 3.eko ikasleei (14-15 urte)

Helburua: Ikaslea profesionalaren rolan jar dadin.

- Beste belaunaldi batekin hitzegin
- Galdetegia landu
- Elgarrizketatik abiatuz (zatiak egin, izendatu, hautatu) eta behar diren gaitasunak garatuz, eduki bat sortu
- Lekukotasunak deskribitu eta artxibatu.

Tailerra nola iraganen den: 32 orduko iraupena, horietarik 22 kanpoko parte hartzaileekin.

- 1- Proiektuaren aurkezpena ikasgelan 3 profesionalen eskutik (EKE-ko etnologoa, irudi hartzaile-muntatzailea, artxibozaina) ; ikasle taldeen osaketa (3-4 gorenaz)
2 oren x 3 – urri hastapenean / urtarrileko lehen hamabostaldian
- 2- EKE-ko etnologoaren esku hartzea: galdetegiaren lantzen eta idazten lagundu, finkatu gaien arabera (ikus *Gai proposamenak* atala)
2 oren – urriaren 2. astean/urtarrileko 2. hamabostaldian
- 3- Galdetegiaren idazketa bukatu gelan erakasleekin
2 oren -urriko 3. astean/ urtarrileko 3. astean
- 4- Irudi hartzaile-muntatzailearen eta EKE-ko etnologoaren esku hartzea: (grabaketaren metodoa barnatu, filmaketaren eta elgarrizketaren aldetik)
3 oren x 2, talde erditan – urriko 4. astean/ urtarrileko 4. astean.
- 5- Aitaxi-amatxien grabaketa. Ikasleek eginik, taldeka.
30 minutuko grabaketa gorenaz (ahalaz omiasainduko edo otsaileko oporretan).
Ikasleek autonomian eraman lana – Iraupena: talde bakoitzaren arabera
- 6- Ikasgelan erakasleekin: esperientzia trukaketa, lekukoari buruzko informazio orokorrak ordenagailuan sartu.
2 oren. azaroko 3. astea /otsaileko 3. astea : grabaketa ondoko saioa, irudi hartzailearen parte hartzearekin, eraskasleak laguntzaile, talde erditan (oren bat /oren bat)
- 7- Irudi hartzailearen esku hartzea: grabaketen muntaketa eta zatiketa. Aurkeztu eta aplikatu.
4 oren – azaroko 4. astea/ otsaileko 4. astea edo martxoko lehena.
- 8- Ikasgelan irudi hartzailearekin: tratatu informazioak gainbegiratu eta taula berrirakurri Baiona-Euskal Herriko artxibo poloaren bisita aitzin.
2 oren – abenduko 1. astean /martxoko 2. astean
- 9- Artxiboen eta bilketaren deskribapenaren aurkezpena, Baiona-Euskal Herriko artxibo poloan, ikasleek muntatu eta zatitu elgarrizketetarik abiatuz. Aurkezpen teorikoa: Departamenduko artxibozainaren eskutik, aplikapena Euskal kultur erakundearen eskutik.
2 oren eta erdi x 2 – abenduko 2. astean/martxoko 3. astean
- 10- Padlet-aren sortzea
Erakasleen esku. 2 oren – abenduko 3. astean/martxoko 4. astean
- 11- Padlet-aren hedapena mintzoak.eus eta archives.le64.fr plataformetan.

PROIEKTUAREN DIRUZTATZEA

Profesionalak

Departamenduak eta Euskal kultur erakundeak profesionalen parte hartzeak beren gain hartuko dituzte.

Garraioa

Departamenduak Baiona-Euskal Herriko artxibo polorainoko bide gastuen %80 bere gain hartuko ditu, ordaindu faktura erakutsiz geroz.

Materiala

Ahozko lekukotasunen biltzeko eta zatitan emateko, tauletak prestatuko dira ikastetxeari, kontratuzko deskarguarekin.

Ikastetxeak, bere aldetik, deskargu agiri bat izenpetaraziko die ikasle, oporraldietan eginen dituzten grabaketa autonomoentzat.

Proiektuak interesatzen dituen ikastetxeak zuzenean harremanetan sar daitezke Baiona-Euskal Herriko artxibo poloarekin ekaina hondarra aitzin.

Kontaktua : Tere GARCIA-LARRACHE

tere.garcia-larrache@le64.fr